

...eta kitto!

708 zkia. 2010-11-5

ASTEKARIA

TOKIKOM



Eztarria zaintzeko opil bedeinkatuak

MULTIOPTICAS

I.A ZERBITZU OPTIKOETAN

ZEUK AUKERATU

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22 • EIBAR

50€
BETALURERIKO ZAHARRAKI TRUZE

2^{garren}
DOTALURERIKO
DOAN


% 60
maitatutako
BEHERAPENA
LOREN MARRATIA



Inoiz ez da azkarregi heziketarik onena jasotzeko.

Ehun urte baino gehiagoraino Aldatze Eibarko heziketan erreferentzia izan da. Gure inguruko beharrei erantzuteko, gauzatu gaituzte -pedagogia, hizkuntzak, teknologia berriak, EFQM...- izan dira eta aldi oraindik gure lanaren oinarriak.

ATEAK ZABALIK
otsailak 6
larunbata
11.00etatik
13.00etara



HEZIKETA INTEGRALA ETA KALITATEZKOA KRISTAU HUMANISMOAN DINAMIZATUTA

ALDATZE IKASTETXEA MENDE OSO BAT HEZTEN

ELEBIDUN IKASTETXEA

2 URTEETIK TBRA BITARTERD IKASLE NESKA-MUTILAK

AZKEN 15 URTEETAN SELEKTIBITATERO FROGA %100EK GAINDITU DITUZTELARIK IKASLEEN BANA KANO JARRAIPENA

ESKOLAKO ETA LANEKO ORDUTEGIAK BATERAGARRI EGITERO ZERBITZU ESKAINTZA

aldatze



ALDATZE

Colégio Santa María
de la Providencia

Aldatze kalea, 5 - Eibar - Gipuzkoa -
Tel: 945 70 11 50 - aldatze@guilera.com



josutorrealday
• argazkilaritza/fotografia

Ezkontza erreportaiak eta estudioko argazkiak
Reportajes de boda y Fotografía de estudio

c/ Ferrás Calbetón nº4 - 1.º A3 (EIBAR) - 679 95 08 58 - 943 53 08 58
www.josutorrealday.com



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekararen E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGLA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

FRISKO.- Mertxika, erderazko 'albérchigo'. "Gure ortuko friskuak loran dagoz".

FRIZTIXA.- Piztia, basa animalia. "Fritzixarik bildurgarrixena dala, esaten dabe, gizona gosiak".

FUERAKA.- Pelotan taldean egiten denean. Kale egiten duena kanpora joaten da. (Lehen, denek euskeraz egiten zutenean, fueraka. Gaur egunean, erdera nagusi denean, ostera, barruka, 'a barrus'). "Fueraka Kontsejupian, Joakin aguazilla jatxi arte".

ESKUTITZAK

OTSAILAK 20: EUSKALDUNON EGUNKARIA-REN ALDEKO ELKARTASUN EGUNA

Euskaldunon Egunkaria itxi zutela zazpi urte betetzen diren egunean, eta Madrilan, Espainiako Auzitegi Nazionalean, *Egunkaria*-ko auzipetuen kontrako epaiketa egiten ari diren bitartean, euskarazko egunkari bakarraren itxiera salatu nahi dugu, guztion artean elkartasun mural handi bat osatuz.

Untzaga plazan egingo dugun ekitaldi berezi horretan, gure herriak dituen baliabide ezberdinak erabili nahi ditugu, *Egunkaria Libre* aldarrira entzunarazteko: ikastetxeak, musika taldeak, kirol elkarteak, dantza taldeak, abesbatzak, elkarte gastronomikoak, dendariak, komunikabideak, etab. Guzti-guztiok zaudete gonbidatuta, zuen parte-hartzea ezinbestekoa izango dugulako ekitaldi hori gauzatzeko.

Guztionean ekarpenekin, eguerdiko 12:30ean hasiko dugun jaialdia antolatuta nahi dugu, xumea izango de-

na, baina *Egunkaria*-ko auzipetuei babes emateko eta *Egunkaria*-ren itxiera salatze balioko duena. Marrakiz bat, olerki bat, dantza bat, lau berba, kantu bat...zuen irudimena behar dugu, mural horri gorputza emateko. Hala, lerro hauen bidez, jaialdi horretan parte hartzea gonbidatu nahi zaituztegu Eibarko euskalgintzako eragileok.

Ekitaldiari ekarpen bereziren bat egin nahiko bazeniot, eskertuko genizuke alde aurretik jakinaraztea, besteak beste, horren berri emateko. Horretarako, honako e-postara idatz dezakezue: erredakzioa@etakitto.com.

Orain arte Eibarko herriak *Egunkaria*-ri adierazi dion babes zabala otsailaren 20an ere ikusiko dugulakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.

EIBARKO EUSKALGINTZA

MUSIKA ESKOLAKOEN ESKER ONA

Eibarko Juan Bautista Gisasola Musika Eskolak eskerrak eman nahi dizkie aurreko igandean Coliseoan antolatutako Piano jaialdian parte hartu

zuten ikasleei, datorren urtean berriro ere antolatuko delakoan.

EIBARKO MUSIKA ESKOLA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Gaur egungo gurasoek super-semealabak besterik ez dituzte bilatzen, azken hauengan euren arrakastaren islada ikusteko. Horrela, umeak etxeko erregeak dira; ez sasoi batean moduan, orduan anai-arreba gehiago izanda, ezin zirelako azal-apainetan hazi. Haur tirano batek apenas duen erru sentimendurik, zigorrari beldur gutxiago eta bere adinari ez dagokion krudelkeria"

(Alicia Banderas, psikologoa)

"Birjintasuna galtzeak dakarzkien irainengatik ihes egiteko Irango neskek ikaragarriko prezio ekonomiko eta psikologikoa ordaindu behar dute. Demokrazia eta modernotasunaren alde borrokatzen den bitartean, beste gai hau tabua da han. Eta asko dira himena lehengora bueltatzeko klinika klandestinetara jotzen dutenak eta, zer esanik ez, bere buruaz beste egitera behartuak"

(Tahereh Hassanzadeh, 'Virgin' pelikularen zuzendaria)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

HITZALDIA

Donostiako Elizbarrutiko Idazkaritza Sozialak eta Eibarko parrokiek antolatutako hitzaldi zikloarekin amaitzeko, otsailaren 8an, astelehenean hitzaldia emango du Joseba Alkaldek. "EAEko arautegia, Hezkuntza eta Kultura hautapen askatasunari buruz" izenburuko hitzaldia Portalean, areto nagusian izango da, 19.30etan.

TAILERRA DEBEGESAN

Debegesak 'Sormena, berrikuntza eta ekintzaile arloari loturiko trebetasun eta gaitasun garapenerako' tailarra jarriko du martxan otsailaren 11n.

Informazio gehiagorako: 943820180 (Marisa).

LEGARRE ETA ARRATE BIDERA TAXIBUSIK EZ

Joan den zapatuan amaitu zen Legarre eta Arrate-Bide kaleetara jarritako zerbitzua. Barrenengua moztuta egoteagatik zegoen martxan, baina orain Udalbusak beteko du zerbitzua.



Presoen eskubideen alde baraurik

ASTEBURUAN BARAU-ALDIA EGIN ZUTEN ARGAZKIAN AGERTZEN DIREN EIBARTARRERREK, barixakuan hasi eta domekara bitartean, "euskal preso politikoen eskubideen alde eta kartzeletan aurreko astean burutzen diharduten gose grebarekin bat eginez".

Hamabi eibartarren baraualdia Untzagan 80 bat lagun batu zuen elkarretaratzearekin hasi zen barixaku iluntzean. Udaletxe barruan egin zuten asteburuko baraualdi hori eta zapatuan eta domekan ere elkarretaratzeak egin ziren, egun bakoitzean bana.

Santa Agedari koplaka

OHITURARI JARRAITUTA, ATZO GOIZETIK HASI ETA ILUNTZERA BITARTEAN

Santa Agedari koplaka jardun zuten askok eta askok. Herriko ikastetxe guztietako umeak taldeka ibili ziren, irakasleek lagunduta, betiko koplak eta eurek sortutako beste batzuk abesten, santseskean. Eta iluntzean,

berriz, Sostoa abesbatzakoak ibili ziren, Torbio Etxebarria kalean hasi eta Urkizuraino kalejiran. Bertan, santseska amaitzean, Auzokoak elkar-




tekoek Dorrepe elkarte gastronomikoan eskaintako piskolabisarekin gozatzeko aukera izan zuten.



Zinema operatzaileek bazkaria egin zuten

EGO-GAIN KALEKO BATZOKIAN ELKARTU ZIREN aurreko asteburuan zinema-kabina operatzaileak, urteroko zitari huts egin barik: argazkian ikusten dituzuenek bapo bazkalduta ospatu nahi izan zuten San Juan Bosco.



MAIALEN LÓPEZ IGLESIAS

2010eko urtarrilaren 30ean hil zen,
19 urterekin

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.




Lur-jausiak Amañan

BOTATAKO EURIAREN ONDORIOZ, AURREKO ASTEBURUAN LUR-JAUSI BI GERTATU ZIREN Amañan, bariantea jasotzeko beharren inguruan, 100 bat metroko tartean. Jausitako lurraren ondorioz, inguruan aparkatutako automobil batzuetan kalteak gertatu ziren eta, horrez gain, norantza bakarra duen errepidea moztuta geratzean, aukokoek ezin izan zuten automobila erabili, lurra garbitu bitartean. Horren harira, Mikel Izagirre Diputazioan Ezker Batua Berdeak alderdiko bozemaileak lur jausiaren arrazoiaren inguruan galdetu dio

Eneko Goyari, Bide Azpiegi-turetako sailburuari eta, horrekin batera, "aurrerantzean lur-jausirik ez gertatzeko hartuko diren neurrien" inguruko azalpenak eskatu dizkio gobernuko ordezkariari. Izagirrek adierazi duenez, "auzoko bizi-lagunak gertatutakoarekin arduratuta daude. Horrez gain, bariantea egiteko lanek eragingo dituzten ondorioen beldur ere badira. Izan ere, Legarre eta Amaña inguruan 1,2 milioi metro kubiko lur eta harkaitz ateratzeko lanak egin behar dira; ondorioz, lanetako kamioiek 400.000 bidaia egin beharko dituzte".

anzorik anzo



Alkatea merkataritza-gunearen inguruan baikor


Miguel De los Toyos alkateak "zuhurki, baina ikuspegi baikorrek" begiraten dio Errebalen merkataritza-gune berria sortzeko balizko aukerari. Alkateak eta Eva Juez EAJko bozemaileak bilera bi izan dituzte Moyua eta Murias eraikuntza enprekin eta, diotenez, hirugarren enpresaren bat gerturatu da udaletxera, proiektu horren gaineko interesak bultzatuta. Alkatearen berbetan, "hasieratik pentsatuta zegoen bezala Errebaleko proiektuari berriro ekiteko pausoak eman dira azken egunetan". De los Toyosen esanetan, eurekin bildutako enpresa biek bideragarri ikusten dute proiektua. "Otsailean argituko da Errebalen etorkizuna", Udalaren berbetan, baina gaur egun "edalontzia erdi beteta" ikusten duela aitortzen du alkateak. Egunotan udal-plana garatzeko tramiteetan aurrera egiteko kontu juridiko eta legalak argituko dira: "Errebaleko gunea Udalaren eskuetan dago berriz ere eta datozen egunotan behin-behineko parkingaren beharrak hasiko dira bertan". Aparkalekua Aste Santurako amaiteza espero dute. Martxan ipintzean, txandakako TAO sistema erabiliko da ordutegi komertzialean eta ehun bat auto aparkatzeko aukera izango da.

eibar kalea

Barrenengua kalea

Azken urteotan El Corte Inglés berriaren beharrekin lotutako itxuraldaketa izan duen arren, Barrenengua kaleak ez du pegora bakarra hartzen eta, ondorioz, ez dago inor bertan erroldatuta. Markeskua jauregitik behera, "scalextric"-era daraman errepideak osatzen du kalea.

Pegora kopurua: 0. Erroldatutakoak: 0.



Eibartarrak motor garbiaren bila

TEKNIKER-IK4 ETA CIE AUTOMOTIVEK 15 URTE DARAMATZATE ELKARLANEAN MOTORREN ZERBITZUAK HOBETZEN eta gas kutsatzailleen emisioak murrizten. Zentzu horretan teknologia aurreratue-

nen proiektuen garapenean aritu dira biak, eta Renault, Fiat, Nissan, Volkswagen, Abamotor Energia, Guascor, Deutz eta abarrekin egin dute lan motoren osagaien merkatuan lidergoan kokatzera helduz.

asteko

25.000

datua

euroko saria banatu zuen Eva M^a Pereda ONCEko saltzaileak, urtarilaren 31ko zozketan.

Bidebarrieta kaleko 23an dagoen kioskoan saldu zuen saritutako kupoa eta irabazleak bonokupoiaren bitartez jaso du saria.

Tallarra Gaztetxea, "obrismoaren" ondorioak pairatzen"

JOAN DEN ASTEKO EGUAZTENEAN UDALTZAINAK TALLARRA GAZTETXERA JOAN ZIREN bertan zeudenak ateratzeko asmoarekin, eraikuntza botatzeko prozesua martxan jarri ahal izateko. Hala ere, eraikina hustutzeko agindu barik joan ziren bertara eta ordutik beti dago jendea Gaztetxean txandak egiten.

Egoera horren aurrean Gaztetxeko jendeak asanblada informatiboak egin ditu eta baita manifestaldiak ere. "Tallarrak aurrera darrai, autogestioak aurrera darrai, eta bertan burutzen diren ekintzetan parte hartzeko dei bat luzatzen dizuegu Eibarko zein inguruetako herritar guzti", diote Gaztetxekoek.

Udaletik duela hilabete batzuk komunikatu zitzaie la diote ("hala-nola, kalean") Gaztetxea hustu eta bertatik joan behar zirela. Hortik aurrera berrikerik jaso ez zutela salatzen dute, "gure gutunak ez dituzte erantzun ere egin".

Gaztetxearen eraisketa, hala ere, eraikuntza botatze soila ez dela salatzen dute Gaztetxekoek. "Antolatze eta herria bizitzeko eredu bat bota nahi dute". Euren berbetan Eibarren es-



pekulazioak ez du mugarik eta epe motzean hainbeste aldatu den herri gutxi dago. "Herritarrek kontsumitzaile hutsak izatera mugatu gaituzte gutxi batzuen poltsikoa betetzeko, eta azpiegitura zein etxebizitzaren eraikuntzan babesa topatu dute herri honetan agintzen duten politikari/enpresariak. Oraingoan Tallarrari tokatu zaio 'obrismoaren' ondorioak pairatzea".

Kontzertua gaur

Utzarazte egoeraren aurrean, hala ere, Tallarrak eskaintza kulturala sustatzen dihardu. Gaur, adibidez, Lengua de Trapo eta Zirriborroren kontzertua eskainiko da 22.30etatik aurrera.

Oin dala hamar urte

2000-II-4 / 302. ZKIA.



- Tradiziño handiko botijeruaren irudixa inauguratu eben Urkusuko iturraren aurrian. Diego Cruz eskultoriak egindako figuraren inguruan esamesik be izan zan, jentiarri bizkarra emoten eguala-eta.
- Turideia lehiaketia irabazi eta gero, lastebide enpresa sortu eben herriko lau lagunaren artian. Euskal Herriara bisitatze akerak eskintzen hasi ziran, batez be inguruko enpresak bisitatze zetozenendako.
- "Eibarko idazlien eta idazlanen antologixia" liburua kaleratu eban Euskara Batzordiak, ordura arte Eibarko euskarari buruz idatzitako azkena eta atal bateko ariketa praktikuekin osatuta zetorrena.
- Butanuen banaketako arazua konpontzen hasi ziran, hainbat hilaletetako hutsegiteeri aurre egiteko Repsolek egindako ahalegin berezixari esker. Bittartekari lanak egin zittuan Konsumo Buleguk.

Oin dala 365 egun

2009-II-6 / 666. ZKIA.

- Eusko Jaurritzaren Hizkuntza Politikorako sailburuordetzak Ukan Berrikuntza Sarixa emon zetsan ...eta kitto! astekarixari Donostiako Victoria Eugenia, oiñ arte egindako ibilbidirengaittik.
- Patxi Lópezek Eibarrera egindako bisitan, konpromisua hartu eban bera lehenkari izan ezkeron egonaldi erdi-luzerako ospitala egingo ebela gure herrixan, horretarako hiru toki proposatuz.
- Euskal Bizikleta kirol alkartia DV Kirol Antolakuntzekin batu eta Euskadi Txirindularitza Antolaketen Alkartia sortu eben, ordutik aurrera Euskal Herriko Itzulixa eta Donostiako Klasikua antolatzeke.
- Gizarte larraldixetarako eskaerak %15 igo ziran azken urtitan gure herrixan: 2008ko 311 eskaereri beste 50 barri gehitu ja-kezen, gehixenak etxebizitzan eta garraian laguntzeko.




2010ak ekarri dittuan gauzen artian bankuetako bezeruak ordaindu bihar dittuen komisiñuen igoeria dago, iaz baiño %10 gehiago. Igoera horrez gain, Haitira laguntzeko dirua bialtzeko orduan komisiñuak kobratu dittue bankuak eta bestien kaltiaz aprobeztatuz salatatu dittue askok.

Zein iritzi dakazu banku eta kutxetako komisiñuen gaiñian?



JESUS PÉREZ
67 urte
jubilaua

Nik momentuan ez dakat ez txartelik, ez ezer. Edozer gauzagaittik gehixegi kobratzen dabe eta nik erabaki neban txartela kentzia. Abusatu egitten dabe komisiñuen kontuakin eta edozer gauzagaittik kobratzen dabe gaur egunian.




MARIA CORO MANZANEDO
61 urte
etxeoandria

Ez dago eskubiderik. Hasteko ez dakazu ixa dirurik, eta dakazu diru gitxi hori kendu egitten detsue. Pobrietaz abusatzen dabe, izan be, aberatsek aberats izaten jarraitzen dabe. Ezin dabena egin da gitxi dakanari kendu, dana-gaittik kentzen deskue.

ROSA MURUA
49 urte
etxeoandria

Gehixegikeriak egitten dittue danarekin. Dana dira komisiñuak, posta-gastuak... danagaittik kobratzen detsue. Azkenian dirua adreillu azpitan gordetzen amaittuko dogu. Gaiñera, edozer gauzagaittik kendu, baiña gero ez detsue ezer emoten, eskerrak bez.



MIGUEL SAMPEDRO
73 urte
jubilaua

Egixa esan, iñori ez jako gustatzen pagatzia, baiña tira, holan da gauzia. Nik ez dot gehixegi ulertzen gai honen gaiñian, baiña gehixegizkua bada be, bankuek ez detsue beste aukerarik lagatzen; holan, ordaindu eta kitto, ezingo da beste gauzarik egin.



OPTICA BEITIA
OPTIKAZ ARIKATZEN

Ondo mitzun haberego bitzetako

Amplifon-ek, entzumen-konponbideetako munduko liderrak, honakoa eskaintzen dizu:

- Entzumen-zaterketa doan
- Prebete audifonak doan 30 egunerik
- %20ko deskontua edozein audifono erosterakoan
- Gainera, arabilzaila izanda, zure audifonoaren zaterketa doan egin eta pila pakete bat oparituko dizugu.

OPTICA BEITIA - JULIAN ETXEBERRIA, 13
20600 EIBAR - 943 74 02 90
(Bilatuz aurretik telefonoz hitzartuko dira)

EGOITZA NAGUSIA
Bilaberriete 20 - beheko eskuna

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errausketa laber

- Egokibonari (Signo poligonari)
- Partikular, mutua eta osaguru ebaki zerbitzuak
- Korazok - Eskelak - Urteurrenako eskelak
- Euskal Herri osoan ospitaleetan hartzen ditugu
- Nazio eta Nazioarteko traslakadak

Mugica Ehorzketa
Ehorzketa laber

TELEFONUA (24 ORDU)
943 201 951

Gurian oiñ arte Eguen Zurixak izan dau pisurik haundiña Aratostietan, baiña azken urtiotan, eta Kezka dantza taldiak martxan ipiñittako ekimenari esker, egun batzuk lehenago Aratostietarako girotzen juateko aukera paregabia dakagu eibartarrok. Bixar bertan, goizetik hasitta, basarririk basarri ibilliko dira urtetik urtera haunditzen juaten dan konparsako personajiak, koko-dantzak eskintzen eta, bide batez, basarritarrak emondako produktuak jasotzen. Neguan eskian jarduteko ohitturan oiñarritzen dan ekitaldixa urtetik urtera sendotzen doia eta, basarrixetan ez eze, kalian be izango dogu koko-dantzekin gozatzeko aukera paregabia.



Bixarko koko-dantzekin hasiko gara ARATOSTIETARAKOA GIROTZEN

Aurtengo koko-dantzak Mandiola eta Agiñaga basarri-auzuetan eskinduko dittue Kezkako dantzariak. Aurreko urtietan Arrateballe, Gorosta eta Mandiola auzuetako basarriak bisittau dittue eta, Kezkako lagunak azaldu deskuenez, "aurten Mandiola osatzeko falta jakuzen lau basarri eta Agiñaga aldekuak bisittauko dittugu".

Oiñ arteko martxiari segiduta, koko-dantzarixak makilla-dantza egingo dabe basarri bakotxaren aurrian. Horren ondoren, marmaruak sarixa pasauko dabe, basarritarren oparixak jasotzeko. Kezkakuak diñuenez, "burburixuen zarata, masusten antxixiketa-saiuak, aixerixak, hartza, Batista kojua eta Arraguetako Ama Birjiñia eta beste hainbat koko-mozorrok osatutako konparsak egun osua

pasauko dau basarririk basarri dantzan, kantuan eta eskian, Jainaga, Laskurain eta Narbaiza trikitalari eta dultzaiñeruekin". Arratsaldian, barriz, 19.00etatik aurrera Eibarko erdiguneko kalietan ibilliko da konparsia, "Mauxitxa txarangak lagunduta".

Koko-eskiaren ibilbidia

Honezkero ohitturia bihurtu



Inguruko basarriak ez eze, herriko kaliak be girotuko dittue koko-dantzak. / FERNANDO RETOLAZA

danari segiduta, koko-dantzen konparsaren lehelengo agerraldixa goizian goiz izango da, 08.30xak aldera. Merkatu plazan ekingo detse egunari, bertan batutako basarritarrak koko-dantzekin gozatzeko aukeria izan deixen. Ondoren Amañara juango dira eta handik gora ekingo detse basarrixen ibilbidia: Sosola, Sosolabarri, Ari-

txluetabarri eta Aritxuluetara igoko dira. Aittatutako basarrixetan koko-eskian jardun ondoren, koko-dantzen konparsak aurrera segiduko dau: "Mandiola atzian laga eta Agiñaga aldera joko dogu. Ixuatik bajatzen eskuñ-ezker daguazen basarrixetara gerturatuko gara: Altzerreka, Zumaran, Mendibil, San Roman, Larrañeta, Iterixa, Aboagaazpikoa, Aboagainekoa, Suinagatxo, Suinaga, Gorostiaga, Arizpe, Atzekoa, Orbesoaren eta Aginaganekoa. Hortik gora segi eta Oregizahar, Arandobarrena, Arandoguena eta Arandoetxebarria, ibilbidia amaitzeko".


Halanda be, basarrixetako kalejiria amaitzen dabenian, 19.00etatik aurrera Toribio Etxebarria, Untzaga eta Calbeton inguruan ibilliko dira konparsako kidiak, Mauxitxa txarangakuak lagunduta, kaliak girotzen.

MAXIMO ARGOITIA ARRIETA

(2009ko urtarrilaren 26an hil zen, 91 urterekin)

Senidekoen izenean, ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.

Bere aldeko meza hilaren 7an (domekan) ospatuko da, 12.00etan hasita, San Andres parrokian



On-line segitzeko aukeria

Bestalde, eta teknologixa barriak eskintzen dituen baliabidiak aprobetxatuta, Kezka dantza taldekuak aurtengo kokodantzen nundik norakuak zuzenian erretransmitiduko ditue, horretarako Twitter erabilitta. Nahi dabenak, beraz, dantza taldekuak bertan zabalduko kontuan (<http://twitter.com/kezkadantza>) harpidetza egitteko eta ibilbidia- ren nobedadiak ordenadorian jarraitzeko aukeria eukiko dau. Bestela be, Kezka-ren blog-ian bertan (<http://www.dantzan.com/blogak/kezka>) "covertlive" izeneko tresna ipiñiko dabe eta horren bidez euren mezuak ikusi eta nahi izanez gero komentari- xuak zintzilikatzeo aukeria eukiko dau hala egin nahi dabenak. Eta, horrekin nahikua ez eta Facebook-en (<http://www.facebook.com/kezka>) be egongo da jaixari jarraipena egitteko aukeria, mezu laburren bittartez eta beti be "koberturiak eta festak horretarako aukeria emoten deskun neurrixan".

Eguen Zurixan umiak protagonista

Datorren eguenian, Eguen Zurixan, urteroko moduan eskoletako umiak izango dira protagonista nagusixak. 15.30xetatik

aurrera ikastetxietako kalejireri ekingo detse, batzuk herriko erdialdian eta beste batzuk, barriz, ikastetxe inguruan. 17.00etan Urkizutik Untzagara kalejiran igoko dira erraldoi eta buruhandixak, eurekin batera igotzen animatzen diran guztiakin batera. Izan be, ordu horretan hasiko da Untzagan Lisker tal-


diaren kontzertua eta 17.00etan hasi eta 19.00ak arte Astixaren makillaje taillarrak egongo dira martxan Untzagan, baiña beste plazan. Taillarretan beldurrezko makillaje, kareta eta orrazkerak egitteko aukeria eskinduko dabela aurreratuta dabe antolatzailliak.

Eta Eguen Zurixaren ondoren,

Barixaku Erregularra ailegauko da, bestiak beste Hungariako kaldereruen bisittiarekin. Baiña horren barri hurrengo astian emongo detsuegu, Aratoste astebururako preparautako guztiakin batera.


Eta eguaztenian... giza-irudi bizidunak

BESTALDE, eta aratostietarako girotzen juateko, Antzerki Jardunaldixen 33. Ediziñuaren barruan Giza-irudixen VIII. Erakustaldixa egongo da martxan eguaztenian, hillaren 10ian. 17.00etan hasi eta illuntzera bittartian Untzaga eta Torbio Etxebarria kalietan Bartzelonako M.P.C. taldeko bost aktorek jardungo dabe, baxotxa bere personajiarekin: Orlandok indixuari emongo detsa bizitza, Ana M^a Lunak maitagarri urdiñari, Jorge Balmasedak aingeru grisari, Fabián Lópezek gargarari eta Julio Garciak, barriz, soldaduari. Estatu ia ixuria eukitta be, gizakixak egongo dira per-



sonaje baxotxaren azpitan, mimikan oiñarritzen dan antzezikizunian daken mailla altua erakusten. Fantasiatzko personajiak, herriko erdialdia kolorez janztizaz gaiñ, hurrengo egunian ospatuko dan Eguen Zurirako motorrak berotzen juateko ezin aproposaguak bihurtuko dira.

Ugaldea poligonoa, 11. Pabilioia 20170 USURBIL



**Bulego altzariak
eta materiala
PAPERDENDA**

Tel. 943 365892
Faxa. 943 371686
Mobila. 687 828590
fatima@manpel.com
www.manpel.com



**EIBARKO
HIZKUNTZA ESKOLA
OFIZIALA**

Jardiñeta, 3
20600 Eibar

*EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
2009/2010*

MATRIKULA LIBREA
Otsailaren 10etik martxoaren 2ra

HIZKUNTZAK: ALEMANA, EUSKARA,
FRANTSESA ETA INGELESA

Matrikula egin nahi dutenek **Internetez bakarrik** egin ahal izango dute www.eoieuskadi.net orrian.
Argibide gehiago: www.eoieibarheo.net orrian
edo 943200618 telefonoan.

ITZULPEN

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarara,
gaztelaratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.**

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com



1909-VI-22. Merkatu plazaren inaugurazioa, gaur egun Julian Etxebarria kalea dagoen lekuan zegoen Jose Gurruchaga arkitektoak egin zuen proiektua eta inaugurazio-ekitaldira agintari guztiak joan ziren. Eguerdian bazkaria izan zen eta arratsaldean Udal Musika Bandak kontzertu bat eskaini zuen bertan plazan. 1940. urtearen hasiera aldean bota zuten. / EIBARKO UDAL ARTXIHOA. HIRIGINTZA ETA OBRAK FONDOA



Jesus Gutierrez
historialaria

Bizi guztian ikasten

Orain dela hilabete batzuk Ikasten elkartearen egon nintzen hitzaldi batzuk ematen Euskal Herriko historiari buruz. Joan baino lehenago interneten lortu nuen informazioa, zer zen Ikasten, zeintzuk ziren euren helburuak, egiten dituzten ekintzak eta abar. Aurretik egunkariaren bitartez oinarreko informazioa banekuan, banekien Escuela de la Experiencia ardatzatik hasi zela formakuntzako eskaintza, parte-hartzaileak 50 urtetik gorakoak zirela, ekintzak esparru askotan banatzen direla eta abar.

Hala ere, hiru saioetan euren egon ondoren, mundu berri bat deskubritu nuen. Ikasteko gosea nabarmena zen gela hartan, mundura begira zeuden gai ezberdinak hobeto ezagutzeko. Garbi neukan euren aurpegiak ikusita interneten ez direla jasotzen taldeen arimak, eta euren blogean aitortutako helburuak ez direla nahikoak ulertzeko Ikasten-en garrantzitsuena arima dela. Talde horretan berezitasun aipagarriena arima baitzen. Hiztegi-ira joaten bagara, arimaren definizioa nahiko abstraktoa da: *alma*¹. *Principio que da forma y organiza el dinamismo vegetativo, sensitivo e intelectual de la vida.* 2. *En algunas religiones y culturas, sustancia espiritual e inmortal de los seres humanos.*

Hauek biak dira lehenengo bi definizioak; baina, horrez gain, definizio mordoia ditu hiztegiak arima definitzeko, kasu gehienetan substantzia eta izpirituarekin lotuta daude, eta Ikasteneko taldean ikusi nuen izpiritu oso balore garrantzitsua iruditu zitzaidan. Zorionak, berriz ere, Ikasteneko lagunei kurto so berri honetan, lan ikaragarria egiten duzuelako.

XX. mendearen bueltan

ANTONIO ITURRIOZek honakoarekin erantzuten dio, El Pueblo Vascoko 402 zenbakian, aurretik Pedro Sarasketak egindako salaketa bati. Erromes tren bat Eibartik pasatzerakoan horren inguruan gertatutako istiluak dira eztabaidagai. Sarasketak aurreko artikulu batean herriko gazte batzuk trenari harriak botatzea salatzen zuen bitartean, Iturriozek hori gezurtatu eta trenean zihoazenen jarrera probokatzailan zentratzen da, egunkariak datuak egiaztatu ez izana salatzerantz iritsiz. **Artikulua 1904ko irailaren 6koa da.**

Erasoak errefusatu

Domekan gertatutakoaren inguruan Pedro Sarasketaren idatzia irakurri eta gero, min hartu dut ikusita zelan iraintzen duen lotsagabeki Eibarko herria. Nondik atera du berak erromesekin zihoan trenari harrika egin ziotela basatiki? Salatzailleak eurak baino gehiago al daki? Bertan izan zen? Ez! Erreferentziak besterik ez ditu, zentro ofizialeatik jasotakoak. Zelan zikindu daiteke horrekin bera jaiotzen ikusi zuen herriaren izena? Zer nahi du, goi mailako agintarien eskua gazte batzuen gainean erortzea inolako errukirik gabe? Guztiz asaldatuta nago gure hiriaren ohoreari egindako atentatu horrekin eta, inork ez badio mugarik jarzen, bat bera ere ez dut tente lagako publizitate bitartekoek aukera eskaintzen badidate.

Erromes trenekin -Itziarretik zetozen hauekin moduan gertatzen dena eskandalagarria da oso. Eibarrera gerturatu ahala, erromes guztiak leihatiletara gerturatu eta betiko oihiak entzun behar izaten ditugu: ¡Abajo la Libertad! ¡Abajo Eibar! ¡Mueran los eibarreses! ¡Viva la Compañía de Jesús! ¡Vivan las órdenes religiosas! ¡Viva el Papa Rey! Pentsatzen dute oihi horiekin min egingo dietela Eibarko liberalei. Hori ez da behin bakarrik gertatu; ohikoa bihurtu da. Eta ez da arraroa izango noizbaiten kataklismo bat gertatzea, pazientziak ere bere mugak baititu. Gobernadoreari ere gomendatuko nioko neurriak hartzeko; bestela, edozein egunetan katastrofea izango dugu gure artean.

Azken domekan gauza bera pasatu zen. ¡Mueran los eibarreses! eta halakoak zabalduko zarataren arrimora, plaza inguruan zeuden gazte batzuk trenari gerturatu eta beste hainbeste irainekin erantzun ziotela. Eta hor amaitu zen dena. Agintariak eta euren agenteak kontu handiz ez badira ibiltzen, gauza txikiak arazo kriminal bihurtu daitezke; eta horrek larritasun publikoa dakar, herri bat ezin baita gobernatu prozesuen bitartez.

Sarasketak esandakoak taberna baten esan izan balitu, inor ez zen minduko, guztiok ezagutzen baitugu: bere diatribak barregura dakarte askotan, gorrotoa baino gehiago. Baina garrantzitsutzat hartzen den egunkari batean halakoei publizitatea ematean, gure hiriaren izen ona zikintzen da, Sarasketa horren jabe ez bada ere. Ez dago Eibar bezain herri ondradurik. Bertako seme-alabak euren lanaren produktuarekin bizi dira. Kultoa, jendea hartzen duena, asmo onekoa: horrelakoa da Eibar. Aberria maitatzen du, gorespenaz. Bertako seme-alabek ehun bizitza emango lukete hiriarengatik. Desafioa botako diot Sarasketari: atera dezala, edozein bost urteko edo hamarkadako, hemengo krimen estatistika, eta gonbara dezala Vasconia noble honetako beste edozein herrirekin eta jakingo du non dagoen bertutea. Gure herritarrak ez direlako beste herri mistiko, begiratu eta beato batzuetako baino moral gutxiagokoak. Egia beti aurretik! Ez dugu ameslari arduragaberik behar!


Gure-guria dan tradiziñuarekin jarraituz, eguaztenian San Blas opillen bedeinkaziñuaren beste ediziño barri bat ospatu zan herriko parrokixetan. Elizan be anis usaiña izan zan nagusi goiz-eguerdi inguru horretan eta jendiak fede haundiz jarraitu eban bedeinkaziño ekitaldixa. Gehixenak, andrakumiak eta adin txikiko neska-mutilak.

Anis usaiñaren erreinuan

SANBLASA ZELAN EGIÑ


(“Eibarko Elkarte Gastronomikoak” liburuko errezetia:

Azukria eta mantekillia, bakotxa kilo erdi, ondo nahastau. Gero, mantekilla eta azukriarekin egindako masiari sei arrautza bota eta ondo nahastau. Horren ostian, kilo erdi urun eta lebaduria gehitu. Laban sartu aurretik, geuk nahi dogun formia emongo detsagu. Labia 210 gradutan ipiñi eta, 10-15 miñutu pasatzen diranako, opilla eginda egongo da seguruenik. Zurixa egitteko, arrautza zuringo bat eta 400 gr. azukre bihar dira. Azukria egosten ipintzen da eta, bittartian, zuringua iribixau zeinkie. Gero, azukre egosixa eta zuringuaren erdixa nahastau bihar dira, apurka-apurka, zurixak gorputza hartu arte. Gogorregixa geratu ezker, ur tantan batzuk bota. Zurixa opil gaiñian jarri eta, gogortzen ez bada, laban sartu segundo batzuetan eta etara.



Argazkixetan, San Andres parrokiakako eta Estaziñoako San Agustineko irudixak.

Gaztaiñerrek batara, Eibarrek bere ohitura jatorrenetakua dau San Blasekua. Lehen lehenago Santa Iñes ermittan gordetzen zan San Blas irudixa eta hara juaten ziran opillak bedeinkatzera. Ermitta hori Isasiko jauregixaren baratz gurenian eguan -baratzak ekan hesiaren kanpoko aldetik-, jauregi horren eta Kaskarregua basarixaren bittartian. Ohitturia San Andres parrokiara pasatu zanian, opillak bakarrik ez, naranjak be eruaten ziran bedeinkatzera. Zintak be eruaten dira, eztulik danian lepuan biltzeko, edo egun batzuetan erabilli eta gero erretzeko.




MAITE LORIZATE (2009-II-10) I. URTEURRENA


“Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa”

LORI: EZ ZAITUGU SEKULA INOIZ AHAZTUKO.

ZURE LAGUNAK: ANABEL, ARRI, BEGOÑA, JULI, PILI, VEGA, BEGO, YOLANDA, PUERTO, ESTHER, ROSA, M^o CARMEN.



TEEN-
AJEA



Kip Kóp kulturaren sorturiko dantza da **break dancea**. Eibarren ere badira dantza hau egiten duten gazteak, eta baita talde bat ere: **Lost Souls**. 19 urteko **Angel**, **Cristian** eta **Pedrok** (*Go!azen* pelikulako aktorea) eta 17 urteko **Henriquek** osatzen dute taldea. Umorea, alaitasuna eta dantzarekiko zaletasuna ez zaie falta.

**LOST SOULS,
Break Dance taldea:**

**“Gustuko dugulako
dantzatzen dugu”**

- Noiztik break dance egiten?

Angel: Bost urte dira Pedrok eta nik kalean gazte bat break dance egiten ikusi genuela. Cristianen anaia zen eta berarekin geratzen hasi ginen, orain joan den Sebastian izeneko argentinarrarekin batera.

Henrique: Dantzan ikusi nituen eta batu egin nintzen. Hasieran Pedroren klaseak jaso nituen eta horrela orain arte.

- Nola osatu zenuten taldea?

Pedro: Angel, Sebastian eta nik dantza egiteko geratzen ginen, eta klaseak ematen genizkien ikasi nahi zutenei. Cristian ere gurekin aritzen zen, baina Miamiara joan zen. Ondoren, Cristian bueltatu zenean, taldea osatu genuen: **Lost Souls**.

- Ikuskizunak eta halakoak eskaintzen dituzue?

Angel: Gustuko dugulako dantzatzen dugu gehienbat, baina gustatzen zaigu txapelketetara joatea. Bestetik, herriko jaietan edo bestelako ekintzetan parte hartzen dugu, horrela eskatzen badigute. Coliseoan, Astele-

nan, jai ezberdinetan... aritu gara, beti disfrutatzen.

Cristian: Onena txapelketetan aritzea da, baina tira,.

- Fisikoki prest egotea beharrezkoa da break dancean?

Angel: Ez da behar prestaketa fisikorik. Gauza da dantzan hasten zarenean garatzen dituzula gaitasun fisikoak: indarra, bizitasuna...

Pedro: Praktikak egiten du maisua.

Cristian: Igartzen da pelikula batean agertu zela Pedro (barreak).


- Non aritzen zarete dantzan normalean?

Henrique: Kalean ibiltzen gara entsaiatzen. Lokala behar dugu.

Angel: Ahal dugun heinean, Nerea Lodosarekin aritzen gara Ipuruako kiroldetxean; berak laguntza eskaintzen digu eta baita guk ere berari.

Pedro: Elkarrekiko laguntasuna da.

Cristian: Benetan eskerrak eman behar dizkiegu Nereari eta baita Kale Hezitzaileei ere.



“Lagun bat joaten zaigunean, hutsik dagoen espazioa geratzen zaigu, beste lagun baten etorrerarekin bete ezin daitekeena”

MAIALEN, INORK EZ DU ZURE ESPAZIOA BETEKO:

zurekin bizi izan dugun guztiaren emaitza garelako gogoratuko baitugu.

MAITE ZAITUGU (ZURE KOADRILA ETA LAGUNAK)

MAIALEN LOPEZ IGLESIAS - 19 URTE - (2010-I-30)

Itsasontzi baten, Euskal Herritik kanpora

Mediterraneoan zehar ibiliko dira 60 bat eibartar Citroenek antolatutako bideo-lehiaketa irabaziz gero. 'Lip dub' delako bideoa grabatu zuten Animaralia izeneko eibartarrek Donostian eta beste bost lehiakideren aurka arituko dira Youtuben kruzeroa irabazteko. Zure bozkaren zain daude!

Wikipediaren berbetan, 'lip dub' musikazko ikus-entzunezko mota bat da. Audio gisa abesti bat harturik eta bideo-kamera batekin, filmatzailerak ibilbide bat egiten du sekuentzia bakarrean grabatuz, eta ibilbide horretan zehar aurkitzen direnek abestiaren berbak ezpaineekin (lip) jarraitu eta dantzaz antzeztzen dituzte. Cooper abeslariaren 'Hyde Park' abestia aukeratu dute eibartarrek audio gisa, eta antzezleku bezala Donostiako Udaletxe pareko parkea, karrusela dagoen gunean, Kontxako hondartzak eskaintzen duen paisaia zoragarrian kokatuta.

Horrelako bideoa egiteko jende asko behar da, horrela, Facebook eta Tuenti bezalako sare sozialetara jo zutela aitortzen du beste 20 bat lagunekin batera guzti honen antolaketan ibili den Lorea Palaciosek. "Lagunak, lagunak lagunak... ezagutzen ez nuen jendea agertu zen bertan". Irabazteagatik lortutako saria ez da txikia,



"bideoan parte hartutako denak joango ginateke kruzerora".

Euria eta txingorra

Grabazio egunean goizeko 09.00etan zeuden geratuta Donostian. "Ez genekien zehazki zenbat agertuko ginen bertan, eta 60 bat izan ginen azkenean". Dena martxan jartzea, hala ere, ez zitzairen asko kostatu Lorea eta konpainiari. "Bizkor egin genuen, erraz. Ordubietarako amaitu genuen guztia".

Mediterraneoan zehar bidaiatuz gero, gutxienez, grabaketa egunean izan zutena baino eguraldi hobea izatea espero dute. "Euria zegoen, haizea... hala ere,

behin ondo grabatu ondoren beste behin grabatu nahi genuen, eta txingorra hasi bazen ere, jendea prest zegoen".

Youtuben ikusgai

Artikulu hau idazteko orduan (eguztaztean) lehen postuan zeuden kokatuta Animaraliakoak 526 punturekin (bigarrenak 481 zituen), baina martxoaren 31ra arte bozkatu daiteke Youtuben (www.youtube.com/user/citroenc3lipdub); beraz, kanpaina egiten jarraitu beharko dute. Bozka gehien lortzen dituen ibiliko da Mediterraneo uretan zehar, eta egindako emaitza ona ikusi ostean eibartarrak bainujantziak prestatzen hasi daitezke.

PREST



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

etorri surretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE

OTSAILAK 6 larunbata - 11:00

Enpresagintza Fakultatea

ONATI

OTSAILAK 11 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORRIATZA

OTSAILAK 18 osteguna - 18:00

ARETO NAGUSIAN

Bengoetxea Lezamako pelota torneoko finalean


SORALUZeko ATXOTEGI AURRELARIA LAGUN DUELA, Lezamako torneoko finalerako sailkatu da Eibarko pelotaria. Finalerdietan, pronostikoen aurka, Jaunarena-López bikote indartsua kale-ratu zuten (22-15). Azpiri-Albisu bikotea izango da finaleko aurkaria. Euskal Ligako buruzburukoan Unamunzagak galdu egin zuen beste behin. Bestalde, Udaberri torneoko partidu bi jokatu dira gaur Astelehen, 20.15etan hasiko den jaialdian. Etzaniz-Egaña eta Hidalgo-Alvarez izango dira Deportiboko ordezkariak.



Kiroljokoak 14 lokal EAEn

BARIXAKUAN INAUGURATU ZEN ISASIN HERRIKO KIROLJOKOA apustu-etxeak bezeroei eskaintzen dien zerbitzu berria. Lokaleko barrarekin, ostalaritza zerbitzua izango da hemendik aurrera, *"hemendik aurrera zuzeneko partiduak ikusi eta apustu egitera etortzen zaretenean erosago egon zaitezten"*, Gorka Amuategi bertako arduradunak aipatu zuenez. Kiroljokoak

apustua egitea eskaintzen dituzten hamalau lokal ditu Euskal Autonomia Erkidegoan: zortzi apustu-etxe edo lokal bereziak (Eibar, Irun eta Tolosa Gipuzkoan; Durango, Gernika, Santurtzi eta Barakaldo Bizkaiari; eta Gasteiz Araban) eta joko-aretoetan kokatutako sei txoko (Donostian eta Gasteizen bana eta Bilbon lau). Gainera, Kiroljokoak 500 apustumakina inguru ditu tabernetan.



KADETE, JUBENIL ETA JUNIOR MAILETAKO DEPORTIBOKO ATLETEK PISTA ESTALIKO Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan hartu dute parte urtarrean, postu esanguratsuak ere eskuratuz. Gipuzkoakoan, kadete mailan, Vouilloz eta Txomin Osoro bi onenak izan ziren pertikan, Ibrahim El Moussaoui 2.a izan zen 600 metroetan eta 3.a 300ekoetan eta Noumane Houga 5.a azken honetan; jubeniletan, Unai Lekunberri 2.a izan zen pertikarekin, Martin Vouilloz 3.a pisuarekin eta Nestor Gisasola 6.a luzera jautsian; juniorretan,

Miguel Txurrukak 8. postuan amaitu zituen 60 metroak. Euskadikoan, bestalde, pertikarekin Vouilloz eta Osoro hirugarrena eta laugarrena izan ziren, hurrenez hurren eta El Moussaoui 4.a izan zen luzeran eta 5.a 300 metroetan. Jubenilen mailan, Asier Azpiakuz 10. postu bi lortu zituen: 200 metroetan eta luzera jautsian.

Aurrekoez aparte, Elgoibarko eta Lasarteko krosean (azken honetan Gipuzkoako txapelketa zegoen jokoan) ere izan dira herriko ordezkariak. Lasartekoan honakoak izan ziren maila bakoitzeko onenak: alebinetan,


Tomas Vouilloz Gipuzkoako txapelduna pertikarekin kadeteetan

Julen Terán (5.a) eta Maider Díez (30.a); infantiletan, Txomin Osoro (13.a); kadeteetan, El Moussaoui (7.a); jubeniletan, Asier Selas (30.a); eta seniorretan, Jonan Rodríguez (32.a). Mugerza krosean, bestalde, Teránek postu bera lortu zuen, Osoro 18.a izan zen eta El Moussaoui 10.a.

Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketa absolutuak eta Espainiako hainbat mailatakoak izango dira jarraian jokatu direnak. Pello Osoro eta Jokin Azkoaga ziren joatekoak, baina lesionatuta daude eta udara arte ezin izango dute lehiatu.

Castillo karateka Gipuzkoan txapeldun

URKI-AMAÑA TALDEKO JESUS CASTILLO KARATEKAK EMAITZA EZINHOBEAK eskuratu zituen Astigarragan domekan jokaturako senior mailako Gipuzkoako txapelketan. Arrateko Ama ikastetxean egindako entrenamenduak ondo baliatu zituen kata modalitateko erregea izateko eta 65 kilotik beherako kumite modalitatean brontzeko domina lortu zuen. Horrez gain, taldekako txapelaren jabe ere egin zen Bera-Berarekin: Urki-Amaña eta talde horren artean duten lankidetzaren itunaz baliatuz Errenteriako taldea ordezkatzu lehiatu baitzen.



KATU  **KALE**
BIDEBARRIETA, 1 **TABERNA**

Izadi
LORADENDA
- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

Izena eman daiteke eski irteeretako

KLUB DEPORTIBOKO ESKI BATZORDEAK otsailaren azken astebururako eta martxoaren lehenengorako irteeretan parte hartzeko izena emateko epea zabaldu du. Aurrez egindako txangoetan moduan, helduak eta umeak elkarrekin joango dira autobusean, gero nagusienak "Hotel Villa Anayet"-en ostatu hartzeko eta gazteenak "Tritón" aterpetxean. Prezioa 60 eurokoa da helduen kasuan eta 70ekoa umeenean (azken honetan, egun bietako forfai eta alokairua barne daude). Izena martitzenetan eta eguenetan eman daiteke (19.30-20.30).



Arrate lanera berriro

SELEKZIOEN ARTEKO EUROPAKO TXAPELKETA AMAITUTA, Asobal ligako taldeek bigarren itzulari ekingo diote asteburuan. Horrela, Arratek Naturhouse La Rioja hartuko du bihar Ipuruan, arratsaldeko 18.30etan. Julian Ruizek zuzendutakoek garrantzi handiko neurketak izango dituzte datozen bozpasei jardunaldietan, sailkapeneko beheko aldean daudenen artekoak. Horien aurretik, martitzenean bertan, Zaragozan jokatuko dute CAI Aragonen aurka.

Montañeros-Eibar, domekan 16.45etan


2. B MAILAN POSTUA BESTE TALDE BAT ORDEZKATUZ LORTU ARREN, A Coruña-ko Montañeros multzoko ezuste handiena da orain arte. Sailkapenean ere goiko postuetan dugu eta domekan Lugoren zelaian irabazi zuen. Ipuruan jokatuako partiduan irudi polita eman zuten, azkenean galdu bazuten ere. Domekako partidua TVG-k emango du zuzenean. Bestalde, Eibar KE-k egurto egin zuen (4-1) Athletic eguaztenean Ipuruan jokatuako lagunartekoan.

Maila handiko garaipena errugbian Getxoren aurrean

ZAPATUKO EGURALDI PETRALARI AURRE EGINEZ, EIBAR HIERROS ANETXEKOEK egun osoko jarduna eskaini zien Unbera joandakoei: goizean multi-kirola, eguerdian jubenilen partidua eta, amaitzeko, Getxo talde handiaren aurkako norgehiagoka. Ohorezko A mailatik aurten jaitsitako talde handiak amore eman behar izan zuten Txema Isasaren mutilen aurrean (24-5) eta azken hauek, lau entsegu eskuratuta -Jokin, Iñaki, Diego eta Mikel-, bonusaren jabe ere egin ziren. Partidu horretako sarrerekin lortutako dirua taldeko zuzendaritzak Haitira bidaltzea erabaki du.

Xala eta Oinatz aurrez-aurre Astelenan

PELOTA PROFESIONALEKO 1. MAILA-KO BINAKAKO TXAPELKETAREN barruan, Xala-Zubieta eta Bengoetxea VI.a-Otxandorena bikoteak izango dira, nor baino nor, Astelenan jokatu den partidu nagusian. Aurretik, Capellán-Urberuaga eta Apezetxea-Goñi III.a bikoteek lehiatuko dute. Jaialdiko azken partiduan, bestalde, Arretxe II.a-Zabala eta Olazabal-Arruti izango dira.



Errealzaleen bidaia Salamancara

EIBARKO ERREALZALEAK BIDAIA ANTOLATU DU SALAMANCARA El Helmánticon bertako taldearen eta Realaren arteko partidua ikusteko. Norghegiagoka martxoaren 14an jokatu da eta autobusa bezperan irtengo da Eibartik (goizeko 07.00etan) domekan, partidua amaitu eta berehala, bueltatzeko. Prezioa 70 eurokoa da, autobusa, hotela eta gosaria barne. Sarrerak ziurtatuta daude eta plaza mugatuak izango dira. Interesatuak Juanito tabernatik pasa daitezke (943 12 16 57).

Asteartero Eibarko sikatiak **HAMAIIKA BERBA** Irratsaloan orantzungo ditu, eguadiako 12.30etan. Zure keza, proposamena, zalantza bidali helbide honetara: eibar@herri-irratia.com SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua) 5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz 943 82 08 44 zenbakira.

90.7 Fm

"Taberna eta eragileek programazio kultura egiteko izandako gaitasuna berreskuratzea" nahi dute Monteka tabernakoek. Euskeraren eta gai sozialen inguruko konpromezuarekin eskaintza kulturala eskainiko du hemendik aurrera Montekak. Jokin Azpiazu antolatzen egongo denarekin izan gara.



JOKIN AZPIAZU (Monteka):

"Kultura gero eta gehiago, orduan eta hobeto"

- Zertan datza zehazki Montekan zabaldu behar duzuen kultur eskaintza?

laz hasi ginen hainbat gauza antolatzen eta aurten horri jarraipen antolatuagoa ematen saiatu gara. Hilero kontzertu eta bideo emanaldi bana eman nahi dugu, zinema arrosa deritzogun inizatiba ere jarri dugu martxan, eta gay, lesbiana eta transexualen inguruko edo eurek egindako filmak ematen saiatuko gara; horrez gain, hitzaldi, ikastaro eta halakoekin jarraituko dugu. Apustu sendoa da.

- Hilabete honetako egitaraua zehaztuta daukazu?

Bai, erabat. Hilaren 10, 17 eta 24ean Linux ikastaroa egingo da Montekan. 14 eta 21ean, berriz, pelikulak emanngo ditugu. 14an 'This is England' skin mugimenduaren sorreraren inguruan dabilen filma eta 21ean 'Ander' pelikula. Zinema arrosaren barruan, esaten dutenez, Euskal Herrian gai horren inguruan egin den lehen filma dena. 28an kontzertua egongo da.


- Hutsunea ikusi duzue herriko kultur programazioan?

Eibar beti izan da kulturalki herri nahiko aberatsa; beti izan dira gauza asko arlo kulturean. Badakigu kultura sus-

tatzeko era zehatz bat eta ematen du horrez gain jendeak ez duela ekarpenik egiten. Gure ustez, kultura munduan gero eta gehiago, gero eta hobeto. Orduan, ondo dago Udalak bere programazioa egitea, Gaztetxeak berea, edo dena delakoa. Animatu egin behar da jendea ahalik eta gehien gure espazioak kulturarako lagatzen. Orain dela urte batzuk taberna askok jarri hori hartu zuten kulturaren sustapenerako, baina azken urteotan alboratu egin dute istorio hori, salbuespenak salbuespen. Ikuspegi horretatik herriari zerbait eskaini geniokeela uste genuen. Argi daukagu, bestetik, eskaintza mota baten alde egiten dugula, euskarazko eskaintzaren aldekoa, eta kultura aldetik eta maila sozialean ikuspuntu kritiko batekoa.

- Ekintzetan parte hartzea doakoa izango da, baina nori zuzenduta joango dira?

Badakigu kontua mugatua dela, nahiz eta guri ez gustatu. Badakit muga batzuk dituela. Programazioa erabat irekia da, baina beste gauza bat da jendea animatzea horrelako kontuetan. Gauza erakargarriak ekartzen saiatuko gara: kontzertuetan etabar.



Javier Zorrakin eta Jose Luis González martitzenean egindako aurkezpenean. / EKHI BELAR

Aratosten inguruko lehiaketak

UDALAK LEHIAKETA BI ANTOLATU DITU ARATOSTEEN INGURUAN.

Batetik, Aratosteetan dotoreen jarritako taberna aukeratzeko lehiaketarako deialdia egin du, jaietarako lokala girotu nahi duten tabernarietara parte har dezaten. Eibarko edozein taberna har dezake parte lehiaketan, Pegoran izena emanda (010 telefono zenbakian). Izen-emateko epea otsailaren 11an amaituko da (eguna), 14.00etan. Izen ematean dekorazioaren gaia zein den adierazi beharko dute parte-hartzaileek. Bestalde, otsailaren 12an, arratsaldeko 18.00etarako tabernak prest egon beharko dira, epaimahaiko kideak barixaku arratsaldean hasiko direlako taber-

narik tabernarako erronda, politena eta, beraz, aurtengo lehiaketako irabazlea zein izango den aukeratzeko. Eibarko Udalaren garaikurra izango da saria.

Bestalde, eta azken urteotako martxari jarraituta, pella lehiaketa ere antolatu du Udalak. Eibarren bizi den edonork har dezake parte lehiaketa honetan, etxean egindako lau pella zati (gutxienez) aurkeztuta. Pellak otsailaren 14an, domekan aurkeztu beharko dituzte, 12.30etan Untzagan, izen-abizenak eta NAN zenbakia emanda. Hiru sari emanngo dituzte: lehenengoak 90 euro eta garaikurra eramango ditu, bigarrenak 60 euro eta garaikurra eta hirugarrenak 30 euro eta garaikurra.



Elkano Browning Cream

GAUR ILUNTZEAN, 20.30-ETATIK AURRERA ELKANO BROWNING CREAM TALDEKOAK ZUZENEAN entzuteko aukera

egongo da Coliseoan (sarrera 7 euro). Mikel Azpiroz donostiarrak zuzendutako proiektuan Azpiroz bera eta Matt Harding eta Franck Mantegari musikariek egin dute bat, jazz, blues eta funk estiloetan oinarritutako "erritmo lineal eta dantzagarriak" eskaintzeko. Bereztasun gisa, gaurko emanaldian Jesús Mari Agirre eibartarrak lagatuko Helmholtz organoa erabiliko dute.




Javier Areitioaurtena Topalekuan

AURREKO BARIXAKUAN ZABALDU ZUEN MARGO ERAKUSKETA Javier Areitioaurtena Izagirik Topalekuan, Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan. Domekara arte zabalik egongo den erakusketa ohiko ordutegian bisitatu daiteke: gaur 19.00etatik 21.00etara eta bihar eta etzi 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara. Argazkian, bere emaztearekin.

Harixa Emoten datorren astean

OTSAILAREN 9-AN, MARTITZENIAN, EGINGO DA HARIXA EMOTEN LITERATURA TERTULIEN hurrengo saioa. Oraingoan **Mikel Peruarenaren** "Ez obeditu inori" liburuaren inguruko tertulia egingo dute taldekieek, Antxon Narbaizaren gidaritzapean. Tertulia ...eta kitto!-n bertan izango da arratsaldeko 19.00etan. Bestalde, tertulietan parte hartu nahi duten guztiei gogoratu nahi diegu edozeinentzat daudela ateak zabalik. Liburuak irakurtzea eta horren inguruko hausnarketa egitea gustuko duen edonork eman dezake izena taldean. Horretarako ...eta kitto!ra deituko behar da (943200918). Tertuliak hile birik behin egiten dira.



Pirritx eta Porrotxen ikuskizunerako sarrerak

OTSAILAREN 26-AN ETA 27-AN IZANGO DIRA PIRRITX ETA PORROTX PAILAZOAK Eibarren, Hezkuntza Esparruan, Marimototsekin batera "Irrien Lagunak" izenburuko ikuskizuna eskaintzen. Zapatutako emankizun bietarako sarrerak amaitu egin dira, baina barixakuan 17.00etan joateko sarrerak erosteko moduan daude El Tío Palancas (Juan Gisasola), Geltoki (Toribio Etxebarria) eta e&m argazki dendan (Urkizun), 6'50 eurotan eta 19.00etarako oraindik ere batzuk geratzen dira.

Cielito Musika Bandaren kontzertua

DOMEKAN, 12.30-ETATIK AURRERA KONTZERTUA ESKAINIKO DU CIELITO MUSIKA BANDAK, Carlos Sánchez-Barbak zuzenduta. Honako programari jarraitutako emanaldia izango da: "Playas de Estepona" (pasodoblea, Navarro Mollor), "Grease" (bilduma, Willy Hautvast-en moldaketa), "La del manojo de rosas" (bilduma, Pablo Sorozabal), "Semiramis" (obertura, Rossini) eta "Dantzaldia" (bilduma, Iñaki Urkizu).



laburrak

GOZOGINTZA IKASTAROA

...eta kitto! Euskara Elkartek antolatutako gozogintza ikastaroan izena emateko epea zabalik dago otsailaren 12ra arte. Hiru saio izango dira guztira eta horietan hojaldrea, krep-ak eta era guztietako flanak landuko dira. Ikastaroak hiru saio izango ditu: otsailaren 18 eta 25ean eta martxoaren 4ean, 18.30etatik 20.30etara Portaleko sukaldetan. Izena emateko deitu ...eta kitto!-ra (943200918). Ikastaroak 10€ balio du (5€ ...eta kitto!-ko bazkide eta berbalagunentzat).

GORUNTZ OSPITALEAN

Domekan, 11.00etan, San Andres zaharren egoitzan meza eskainiko zaio iazko urte amaieran hil zen Jose Ramon Orozko tenorea zenari eta bertan izango dira Goruntz abesbatzako kideak, mezan abesten.

ILLUNABARRIAN


Hilaren 17an, 19.00etan, Portaleko areto nagusian "Illimani: Boliviako izpiak eta hizkiak" izenburuko lanaren proiektzioa eskainiko da, Illunabarrian programaren barruan. Bertan izango dira Amets Arzallus eta Txomin Txueka ikus-entzunezkoaren egileak. Sarrera libre da.

Maialen López Iglesias (2010-I-30)

Bizipen onak betirako direlako eramango zaitugu, Maialen, BIHOTZEAN BETIKO.

ZURE GURASOEN LAGUNAK





Ana Aranberri

Gure umiak hezitzen

Gurasuok lan makala dakagu umiak hazten. Zalantzak sarri agertzen dira zorrotz samarrak izan nahi dogun bakotxian. Azken hogeitortiotan gauzak aldatu egin dira, etxeko kontuak entzutia besterik ez dago: gurasuak askotan esaten dabe “*txikixak giñanian ipurdiko galantak jasotzen genduzen, edukaziñuaren izenian*”. Baiña gaur egun, oster, mutur batetik bestera pasatu ei gara. Gurasuak lan egiten daben ezker, beste norbait arduratzen da umiaz eta hor datoz kontuak. Haur horri ez bajakoz mugak ipintzen, nahi daben guztia egingo dau; hau da, iñor zirikatatu, lagunak jo, erantzun txarrak... zerrendia luzia da eta umia bere senetik kanpora. Eta ez pentsau gero irakaslien egin biharrekuu danik, ondorixuak eskolan nabarmendu arren: konzentraziño faltia, gaiztokerixak egiten egun osua. Irakasle asko arduratzen hasi dira gurasuak holako umiak medikuarengana eruaten dittuelako eta, “*txarto hezittako umia*” dala onartu biharrian, botika gogorrek emoten jakuzelako gaixorik dagozelakuan. “*Hiperaktibojarreraren desoreka*” izenburupian, haur askoren zorabiu dator. Oñi hurrengo Andres Arriaga psikologo kliniko eibartarrak argi laga zeban bere “*Enfermedades mentales. Guía para todos los públicos*” liburuaren aurkezpenian: ume asko arrazoi barik medikatzen dittugu eta arazua ez da gaixorik daguazela, ikusi nahi ez dogun jarrera agerian gelditzen dala baiño: umiak ondo hezitzeko, ipuiñak kontau, abestu, jolastu eta eureri zor jakuen denbora emon bihar jakuela. Gaurko gizarte honetan, badirudi, danerako daguala denboria... Baiña eurentzako be bai?

EGO IBARRA BATZORDEAK ASPALDI, 1995-EAN EGIN ZUEN IKERKETA BATEN EMAITZA INTERNETEN eskuragarri ipini berri dute, <http://egoibarra.com> batzordearen webgunean: armagintzan erabilitako tresneria edo erremintak jasotzen duen zerrenda, bakoitzaren argazkiarekin eta erreminta bakoitzaren erabilearren inguruko azalpenarekin. Batzordeko arduradunen



Taratulua, zulatzeko makina. 1994. / EIBARKO UDAL ARTXIBOA.

Karmele Jaio AEK-n

URTARRILEKO AZKEN BARIXAKUAN KARMELE JAIO IDAZLEA AEK-N R300 IKASTAROA egiten ari direnekin egon zen, "Musika airean" liburuaz berbetan. Eleberrian, bakardadea eta inkomunikazioaren inguruko gaiak jorratzeko, bakarrik bizi den emakume edadetuaren irudia abiapuntutzat hartu du idazleak. So-lasaldian, "Amaren eskuak" zinemara eramateko gidioia egiten diharduela aurreratu zuen eta, horrekin batera, "Hamabost zauri" eta "Zu bezain ahul" liburuetakoa hainbat ipuin itzultzen badabil ere. Ikasleek "berri ere ama izatearen doinuaz goza dezala" opa diote.

Sagardotegira

Bestalde, urteroko moduan AEK-k sagardotegira irteera antolatu du, autobusez. Otsailaren 26an, barixakuan 20.00etan irtengo dira Ego-Gaineko autobus geltokitik: "Aurten ere, Hernaniko Larre-Gain sagardotegira joango gara, bertan, urtero sekulako giroa izaten dugu-eta. Trikitilariak eta bertsolariak ere lagunduko diote sagardoari bidea errazago egiten". Afaria eta autobusaren prezioa 40 eurokoa da. Izena emateko AEK-ra joan (Sostoatarren, 1) edo deitu daiteke (943-201079).



Juan de la Rica Portalean

GAURTIK AUERRERA ETA OTSAILAREN 28-RA ARTE Juan de la Rica-ren "Supermeneos" izenburuko erakusketa ikusgai izango da Portalean, erakusketa aretoan. Arte Ederretan lizentziatutako bizkaitar gazteak, margolanaz gain collageak eta bestelako arte-lanak ere egiten ditu, baina batez ere margolaritzan oinarritu nahi du bere lana. Erakusketa ohiko ordutegian bisitatu daiteke, martitzenetik domekara bitartean, 18.30-etatik 20.30etara.



berbetan, "ikerketa hori berraztertuta eta eguneratu egin da, herriko armaginen aholkuei esker. Bere sasoiak katalogoa egin zen eta argazkiak atera ziren horretarako Eibarko tailer asko eta asko bisitatuta (Pedro Arrizabalaga, Vicente Alberdi, Armas Maguregui, Armas Eibar, Pedro Irusta, Villena, County, Parkemy, R. Fernández, Eugenio Gutiérrez, Mazorriaga, Zubillaga...).

Orain, orduan ateratako argazki guztiak digitalizatu egin dira eta erreminta bakoitza zertarako den zehazten ahalegindu gara, armaginek esandakoa eta bibliografia batuta". Informazio guztia armagintzaren inguruko atalean, "Uti-llajea" izeneko sailean kontsultatu daiteke.

EUSKARAREN

ISUNA TAKOGRAFOA EUSKARAZ IZATEAGATIK. Jaengo Guardia Zibilak isuna jarri dio Arabako garrailari bati takografoaren diskoan data euskaraz jarrita edukitzeagatik; zehazki, 4.600 euroko isuna ezarri dio eta erregistroaren orria faltsutzea leporatu. Salaketa 2009ko irailaren 15ean jarri ziotela jakinarazi du Hiru sindikatuak. Guardia zibilek kamioia gelditu eta diskoak erakusteko eskatu ziotenean, horietan data ondo jarrita zegoen, baina euskaraz; hau da, euskarazko ordenan zeukan idatzita data (urtea/hilabetea/eguna), gaztelaniazkoan eduki beharrean (eguna/hilabetea/urtea). Kamioilariak karguak kentzeko orria aurkeztu zuen eta helegitean azaldu zuen data idazteko orduan bere hizkuntza erabili zuela eta, euskaraz, gainerako beste hizkuntza batzuetan bezala (ingelesa, suediera eta abar) datak ez direla gaztelaniaz bezala idazten. Hala ere, Andaluziako Juntako Garraio Sailak atzera bota du helegitea eta orain bigarren errekurtso bat jartzeko asmoa du garrailariak.


TXOKOA

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Ongi etorri urtarrillaren 22xan Iruñean jaixotako MIREN Sarasola Unzetari eta zorionak Mikel eta Nora gurasuei.




Zorionak, JULEN, martitzenian hiru urte egin zenduazun-eta. Muxu haundi bat aitaxo eta amatxitoren partez.




Zorionak, MIREN Badiola Albizu, hillaren 9xan urtebete egingo dozu-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, SUA eta NIKOLA, astelehenian lau urte beteko dozue-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak; IKER Blanco Calderón, zure lehen urtebetetzian. Aitaxo, amatxo, aitxitxa-amama eta famelixaren partez. Muxu haundi bat etxekuen partez.




IKER gure etxeko artistarik haundixenak zortzi urte egin zittuan hillaren 3an. Zure lehengusu-lehengusien partez, zortzi patxo potolo.



Zorionak, JUNE, zure bigarren urtebetetzian. Aitxitxa-amama eta osaba-izekuen partez.



Zorionak, EKAIN, bixar hiru urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



JOSU eta AMA. Zorionak bikote, hillabete honetan urtiak bete dozuelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.

JAIOTAKOAK

- Oihan Marcos Hernández. 2010-I-22.
- Julen Vicente Gómez. 2010-I-23.
- Markel Domínguez Sánchez. 2010-I-26.

HILDAKOAK

- Guillerma Frontaura Carracedo. 81 urte. 2010-I-17.
- Manuel Iturricastillo Gisasola. 86 urte. 2010-I-27.
- Maialen López Iglesias. 19 urte. 2010-I-30.
- Ines Gaztelu Guridi. 81 urte. 2010-I-30.
- Isabel Verdejo Ruiz. 89 urte. 2010-I-31.
- Daría del Carmen González Noval. 2010-I-31.
- Purita Sodupe Alberdi. 87 urte. 2010-II-1.
- Luisa Ormaetxea Arrizabalaga. 84 urte. 2010-II-1.
- Arturo Macho Garitano. 66 urte. 2010-II-2.
- Dolores Sáenz Palacios. 87 urte. 2010-II-3.

zinea Coliseoan

5ean, 20.30etan; 6an, 17.00, 19.45 eta 22.30etan
7an, 17.00 eta 20.00etan; 8an, 20.30etan

"Sherlock Holmes"

Zuzendaria: **Guy Ritchie**
 Aktoreak: **Robert Downey Jr., Jude Law, Rachel McAdams, Mark Strong...**



Sherlock Holmes-ek eta Watson laguntzaileak Lord Blackwood hiltzailea harrapatu dute. Urkan hiltzeko dagoenean, Blackwood-ek zera esango dio Holmes-i: "Hau ere aurreikusita nuen, Sherlock". Handik gutxira hilketak hasiko dira berriro...

"Celda 211"

Zuzendaria: **Daniel Monzón**
 Aktoreak: **Luis Tósar, Alberto Ammann, Antonio Resines, Marta Etura...**



Juan espetxe funtzionarioa lanpostuan hasi behar duen bezperako egunean aurkezten da. Istripu bat izango du justu FIESeko presoek matxinadari hasten diotenean. Bere lankideak presoekin laga beharko diote eta Juanek presoarena egin beharko du...

"Tiana y el sapo"

Zuzendaria: **Ron Clements**
 Pertsonaiak: **Tiana, Príncipe Naveen, Ray, Louis, Dr. Falicer...**



Tiana beltz koloreko printzesa eta Naveen printzipe europarraren arteko historia da. Azken hau igel bihurtuko da, Dr. Falicer budua praktikatzan duen aziaren eskutik. Disney eskolako motako istorioa New Orleansen gertatuko da...

Ego Ibar

"L.I.E."

Zuzendaria: **Michael Cuesta**
 Aktoreak: **Adam LeFevre, Marcia DeBonis, Bruce Altman, James Costa...**



Howie Blitzer 15 urteko mutilaren ama istripu baten hiltzen da Long Islandeko autopistan. Aitaren axolagabetasuna eta biolentzia eta arriskuz betetako munduko bakartasuna da nagusi. Gary bere lagun onenak etxe bat lapurtzera animatuko du...

horoskopoa

ARIES

Zuretzat garrantzitsua da, baina horregatik ez da besteentzat ere horrela izan behar. Jendeak arazo ezberdinak ditu, ez itzazu zoratu.

TAURUS

Modu osasuntsuagoan jaten hasi beharko zara. Bai, oso ondo zaude, baina zelan duzu gorputza barrutik? Ahora zer eramaten duzun zaindu.

GEMINI

Merkatari bikaina izango zinateke feniziar eta horien garaian. Edozeinekin tratua egiteko kapaz zara, baita deabruarekin ere.

CANCER

Beherapenak, deskontuak, bonuak... horrelakoak aprobetxatu beharko dituzu dirua aurrezteko. Behar duzuna besterik ez gastatu, bestela...

LEO

Eztarriko minak ez dizu bakean utziko. Lo egiteko txarto, berba kostata, arnasteko ere arazoak... jarabe potente bat erosi ezazu!

VIRGO

Zein da zuretzat asteko egunik gogokoena? Trankil, aste honetan egun guztiak izango dira zoragarriak zuretzat. Ezin izango zara kexatu.

LIBRA

Saia zaitez egunero irribarre batekin altxatu eta gertatuko zaizkizunak ondoen eramaten. Ez dira gauza gogorak, baina hobe barre batekin.

SCORPIUS

Hotza ondo jasaten ez baduzu, ahalik eta gehien babestu zaitez. Negua gogorra egingo zaizu, barreneko hotz berezia sentituko baituzu.

SAGITTARIUS

Astelehen goiza bereziki gogorra egin zaizu. Hortik aurrera, hala ere, gauzak hobetzen joango dira eta astea modu bikainean amaituko duzu.

CAPRICORNIUS

Ez eduki presa handirik, helduko da momentua eta jasoko duzu merezi duzun hori. Bitartean egon trankil, ez galdu pazientzia.

AQUARIUS

Ezin duzu espero dena zuretzat izatea, besteek ere zuk haina lan egin baitute. Gainera, zertarako nahi duzu guzti hori? Zer egingo duzu horrek?in?

PISCIS

Gauza bat da eztabaidatzea eta beste bat zuk egiten duzuna. Besteek ezin dute ezer esan zure aurrean, berehala asaldatzen zara. Lasaiago hartu.

Barixakua 5

KONTZERTUA

20.30.- Elcano Browning Cream taldearen kontzertua (jazz). Sarrera: 7 euro. Coliseoan.

KONTZERTUA

22.30.- Lengua de Trapo (la banda de mil demonios) eta Zirriborro (Soraluzeko kantautorea). Tallarra gaztetxean.

Zapatua 6

KOKO-DANTZAK

08.30.- Koko-dantzak eta koko-eskea. Merkatu plazan.

09.00.- Koko-dantzak eta koko-eskera Aginagako baserrietan, Kezka dantza taldeko koko-dantzari eta koko-marruekin eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin eta Laskurain dultzaineroekin.

19.00.- Koko-dantzak Calbeton, Untzaga eta T. Etxebarria inguruan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

10.00/16.00.- XXXIII. Antzerki Jardunaldietarako sarreraren aurresalmenta. Coliseoan.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-en kalejira, Untzagatik hasita.

Domeka 7

ANTZERKI JARDUNALDIAK

10.00/16.00.- XXXIII. Antzerki Jardunaldietarako sarreraren aurresalmenta. Coliseoan.

KONTZERTUA

12.30.- Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- "Dos canguros muy maduros". Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.

Astelehena 8

ANTZERKI JARDUNALDIAK

10.00/16.00.- XXXIII. Antzerki Jardunaldietarako sarreraren aurresalmenta. Coliseoan.

HITZALDIA

19.30.- "EAEko arautegia, Heziketa eta Kultura hautapen askatasunari buruz", Joseba Alkalderen eskutik. Portalean.

Martitzena 9

IKASTEN

10.00.- "Grandes tesoros de la arqueología II", M^a Jose Noainen eskutik. EPAn (Isasi, 39).

UNI ENCOUNTER

18.00.- "Informática y nuevas tecnologías. ¿Qué esperamos del futuro?". David Urzainki, Carlos Totorika, Miguel de los Toyos eta Benjamín Atutxa-ren eskutik. Uni Eibar-Ermuan (Ongarai auzoan, Ermuan).

HARIXA EMOTEN

19.00.- Literatur-tertua: Mikel Peruarenaren "Ez obeditu inori" liburuaren inguruan. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuartea).

Eguaztena 10

UNI ENCOUNTER

16.00.- Seguritasunaren eguna. "Aplicaciones maliciosas actuales", José Alemán-en eskutik. **17.30.-** "Hacking ético", F. Javier Diéguez Barriocanal-en eskutik. Uni Eibar-Ermuan (Ongarai auzoan, Ermuan).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17.00.- Giza-irudien VIII. Erakustaldia. Untzaga eta T. Etxebarria kaleetan.

HITZALDIA

19.00.- Hitzaldia: "Zer da GNU/Linux sistema operatiboa?" (hurrengo eguaztetenetan gaiaren inguruko ikastaroa). Montekasino tabernan.

Eguena 11

EGUEN ZURI

15.30.- Ikastetxeetako haurren kalejira. 17.00.- Urkizun hasi eta Untzagaraino, erraldoi eta burruhandien kalejira. 17.00.- Dantzaldia, Lisker taldearekin. Untzagan. 17.00etatik 19.00etara.- Beldurrezko makillaje, maskara eta ileapainketa tailerrak, Astixarekin. Untzagan.

EGOIBAR ZINEKLUBA

17.00 eta 21.00.- "L.I.E." (Zuz: Michale Cuesta). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.


DENBORAPASAK

			8	6				
		6		1				
1			5	9		7	4	6
	4	8	1		3	9		
3		9	4	8		2	7	1
	1			7		3		
6	9		2	3	1			
	2							9
8		1	9					

SUDOKUA

5	1	9	6	3	8	7	2	4
8	7	2	4	5	5	6	1	3
4	4	3	2	7	1	8	9	5
9	8	7	5	2	3	4	6	1
2	6	1	8	4	7	5	3	9
4	3	5	1	8	6	9	7	2
3	2	8	7	5	4	1	9	6
7	5	8	3	1	6	2	4	9
1	9	4	6	2	3	5	7	8

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

- Otsailaren 7ra arte
JAVIER AREITIOAURTENAren margo erakusketa. *Topalekuan.*
- Otsailaren 16ra arte
ARATOSTEAK 2010 EIBARREN kartel lehiaketako lanen erakusketa. *Portalean.*
- Otsailaren 28ra arte
Eibarko Klub Deportiboko **JUAN DE LA RICA** -ren "Supermeneos" margo erakusketa. *Portalean.*
- JOSE GALLARDO**ren "Bajo para ver tus sueños" argazki erakusketa. El Ambigú tabernan.
- "FOTO MONTCADA '09"** argazki erakusketa. Depor tabernan.
- IBAI ARMENTIA**ren argazki erakusketa. Portalea tabernan.

ikastaroak

- **Gozogintza ikastaroa.**
Noiz: Otsailak 18 eta 25 eta martxoak 4, 18.30etatik 20.30etara. Non: Portalean (sukaldean).
Izen-ematea: Otsailaren 1etik 12ra, ...eta kitto!-n (Berbetan programakoek eta bazkideek deskontua izango dute).

lehiaketak

- **Aratosteetan dotoreen jarritako taberna.**
Izen-ematea: Otsailaren 11ra arte, Pegoran
- **Pella-lehiaketa.**
Pellak aurkeztea: Otsailaren 14ean, 12.30etan Untzagan.
- **Industriagintzari buruzko IV. Argazki Lehiaketa.**
Lanak aurkezteko epea: Otsailaren 26a. Informazioa: Armeria Eskolan, aaa@armeriaeskola.com
- **XIII. Eguen Zuri argazki lehiaketa.**
Lanak aurkezteko epea: Otsailaren 23ra arte. Arrate Kultur Elkartearen. Informazioa: 943 202299 telefono zenbakian edo arrate.kultu@eibar.org
- **"Ixua-Valenciaga Memoriala" argazki lehiaketa.**
Lanak aurkeztea eta informazioa: Apirilaren 28ra arte, Eibarko Txirrindularien Elkartearen (Pagaegi, 3), cce@clubciclistaeibarres.org.

farmaziak

- 5, barixakua**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 6, zapatua**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 7, domeka**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 8, astelehena**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 9, martitzena**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 10, eguaztena**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 11, eguena**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 12, barixakua**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.50 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.30, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.50 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.50 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 20.20etara orduerdiko). Zapatua-Domeka-Jaieguna: 06.50etik 21.50-era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55-era orduerdiko. Zapatua-Domeka-Jaieguna: 07.55etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.15etatik 20.15etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai Eibarko erdialdean. 130 m². 3 logela, komun bi eta despentsa. Gutiz berriztuta. Aukera ezinhobea pisu handiago batera aldatzeko. Tel. 626-203838.
- Errebal kalean duplexa salgai. 4 logela, egongela, sukalde handia, komun bi, despatxoa eta terraza. Berriztua eta argitsua. Deitu arratsalde. Tel. 605-772606.
- Elgoibarko erdialdean pisua salgai. 3 logela, terraza handia eta garajea. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 685-724553.
- Pisia salgai Ipuruan, J.A. Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukalde desdentsarekin, komuna eta trasteroa. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 661-291898 edo 610-603631.
- Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Berriztua. 25.000.000. pta. Tel. 659-687736.

1.2. Errentan

- Pisia hartuko nuke Eibar inguruan. 2/3 logelakoa. Tel. 690-980846.
- Eibarren pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukalde-jangela eta bainugela bi. Berogailua eta fibra optikoa. Inguru la- sia. Tel. 943-201294 edo 645-728317.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokai- ruan. Tel. 645-366850 edo 943-530517.
- Logela alokagai. Tel. 690-156040.
- Pisia alokatuko nuke Eibarren. Tel. 943-208178 edo 629-976131.
- Pisia hartuko nuke Eibarren alokai- ruan. Tel. 636-430546 edo 646-048823.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eiba- rren. 2 edo 3 logelakoa. Tel. 608-975207. Laurin.
- Pisia hartuko nuke alokairuan (ganba- ra), lagun batendako modukoa. Tel. 678-150053 edo 609-248845.
- Logela alokagai lagun bakarrarentzako. Tel. 688-618959.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokai- ruan. Logela bat edo bi. Tel. 688-618959.
- Urkizuko Orbeako dorreetan pisua alo- kagai. 3 logela, egongela, sukalde eta komun bi. Tel. 943-702672 edo 600-657196.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Urkizun bat-bi plazako garajea salgai. Tel. 629-590701.

3.2. Alokagai

- Garaje itxia Abontzan alokagai. Tel. 615-712216.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 699-653874.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Interna edo externa eta asteburuetan. Tel. 666-771151.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko orduka. Tel. 662-284425.
- Geriatria laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 618-377283.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketara lanerako. Arratsalde eta asteburuetan. Tel. 676-035738.
- Eibarko neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko orduka. Tel. 626-566776.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketara lanak egin edo taber- netan jarduteko. Interna edo externa. Erreferentziak. Tel. 943-120299 edo 672-203675.
- Eibarko neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeak garbitze- ko. Tel. 636-302237.
- Neska euskalduna eskaintzen da etxe- ko lanerako. Tel. 687-114707.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa eta ordu- ka. Tel. 608-897639.
- Gizona eskaintzen da aire egokituko galdarak muntatzeko 1. mailako ofizial moduan. Tel. 610-545505.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 610-545505.
- Emakumea eskaintzen garbiketara lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 610-545505.
- Gizona eskaintzen da edozein lanera- ko. Esperientzia elektrizista eta iturgin moduan. Ingelesarekin. Tel. 657-683887.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusi- ak edo mendekotasunak dituztenak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 671-232742.
- Neska arduratsua eskaintzen da goi- zez umeak zaindu eta garbiketara lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 678-534041.
- Neska eskaintzen da kamarera mo- duan lan egiteko. Tel. 945-530704.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna moduan. Zapatu eta domeketan ere. Tel. 630-531469.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketara lanerako. Tel. 663-786976.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintze- ko. Interna edo externa. Tel. 608-897639 edo 943-743618.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintze- ko 11.00etatik 17.00etara arte. Tel. 679-910991.
- Gizona eskaintzen da edozein lanera- ko. Tel. 616-809926.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Mutila eskaintzen da sukaldari-lagun- tzaile, igeltsero edo margolari moduan lan egiteko. Tel. 638-465098.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 693-232959 edo 943-254118.
- Gizona eskaintzen da gidari moduan, nagusiak zaindu etabarrerako. Tel. 693-232959 edo 943-254118.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan- nerako. Tel. 645-366850.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintze- ko. Interna edo externa. Tel. 619-445548.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan lan egiteko. Tel. 697-481487.
- Emakumea eskaintzen da dendarri laguntzaile moduan lan egiteko. Tel. 697-939085.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketara lanera- ko. Tel. 943-171583.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-516240.
- Gizona eskaintzen da sukaldari-lagun- tzaile moduan edo edozein lanerako. Tel. 690-156040.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketara lanerako. Tel. 639-020180 edo 686-274490.
- Neska arduratsua eskaintzen da aste- buruetan nagusiak zaindu eta garbiketara lanerako. Tel. 689-436454.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 669-966611.
- Neska eskaintzen da goizez lan egite- ko. Tel. 608-886701.
- Gizona eskaintzen da igeltsero edo ban- natzaile lanerako. Tel. 650-513412.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketarako egin edo tallerretan lan egiteko. Interna edo externa. Tel. 635-313375.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketarako egin edo tallerretan lan egiteko. Tel. 685-761979.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusi- ak zaindu eta garbiketara lanerako. Espe- rientzia eta erreferentziak. Tel. 672-203675.
- Mutila eskaintzen da sukalde-lagun- tzaile, igeltsero, biltegian lan egiteko edo banatzaile moduan. Tel. 943-530795 edo 638-344377.

- Emakumea eskaintzen da garbiketara lanerako: etxeak, eskilarrak, pegorak. Tel. 653-010861.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egite- ko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 646-394857. Celia.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketara lanerako. Arratsaldeko 17.00etatik goizeko 10.00etara. Tel. 662-247584.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketara lanerako. Interna edo ex- terna. Gerontologia eta psikologia. Tel. 635-313375.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusi- ak zaindu eta garbiketara lanerako. Es- perientzia. Tel. 655-384877.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da Deporren aste- buruetarako. Deitu 11.00etatik 23.00eta- ra. Tel. 943-207044.
- Kamareroak behar dira Arraten astebu- ruetarako. Autoarekin. Tel. 677-638184.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Gidatzeko kametaren matrikula saltzen dut erdi prezioan, kanpora noalako bizi- tzerara. Probaleku kaleko Ermua Autoes- kolan Tel. 695-737204.
- Bigarren eskuko patinak erosiko nituz- ke. 38 zenbakikoak. Tel. 646-293311.
- Telebista salgai. Berthen markako 21"koa. 6 urte. Mandoarekin eta Philips osagaiak. 90 euro. Tel. 656-736057.
- Emakumearen eztei-jantzia sal- gai. Tel. 617-256466.
- Ontzi garbigailua salgai. Bosch marka- koa. 3 hilabeteen bakarrak erabilia eta urte eta erdiko bermearekin. 300 euro. Tel. 679-720405.
- Txintxilak salgai jende arduratsuaeren- tzat. Hilabete eta erdikoa bata eta hilabe- te bikoak bestea. Tel. 943-203205.
- Maxicosi kotxea, kapazoa eta aulkia salgai. Bebe confort urdin iluna. "Silla bastón" eta trona. Tel. 617-256466.

6.2. Eman

- Urte biko txakurra oparitzen da, ezin delako atentidu. Pitt-bull eta retriever- aren nahasketa. Tel. 636-858552.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Bi urte eta erdiko txakurra galdu da Matsaria inguruan. Crema koloreko mas- tina. Tel. 605-730123.
- Hilaren 23an Untzaga inguruan Ninten- do DS zuria galdu nuen. Aurkitu baduzu, deitu. Tel. 679-576589.

6.4. Bestelakoak

- Bigarren eskuko ordenagailu portatila erosiko nuke. Tel. 688-661415.



Tel. 943 03 38 92

Txaltxa Zelai, 4-6an

zerbitzuak:

- AHOLKULARITZA informatikoa
- HARDWARE-aren salmenta
- SOFTWARE-aren garapena
- EMPRESEI zuzenduriko zerbitzua
- PARTIKULARREI zuzenduriko zerbitzua



zerbitzu teknikoa
SOFTWARE
INFORMATIKA
HARDWARE
aholkularitza



**Zuk uste baino hurbilago,
nahi bezain urrun
hel daitezzen.**

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA


EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Aurrematrikulak

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN



ITZIO D.B.H.

943 70 22 89

**Nahi bezain
URRUN HELTZeko.**
Heziketa ZIENTIFIKOA.
Heziketa MODERNOA.
GIZA heziketa.
**HIRU HIZKUNTZAKO
heziketa.**



MOGEL ISASI D.B.H.

943 20 30 94



AMAÑA

943 20 72 50

**Otsailaren
1etik 11ra**

**2010
2011
IKASTURTEA**



ARRATEKO ANDRA MARIA

943 20 72 35




J.A. MOGEL IKASTOLA

943 20 84 87



SAN ANDRES

943 20 79 95



URKIZU

943 12 17 78